

Lehenengo eta behin, B mailan epaile moduan aritu garenok azpimarratu nahi dugu maila honetan aurkeztu diren lanen kalitatea. Idazleak 1998.etik 2001.era bitartean jaiotako gazteak direla kontuan hartuta, batzuetan aipatzen diren topikoak gezurtatzen dituzte haien lanek, bai gaiak garatzean erakutsi duten sakontasunaren aldetik, bai gai haiek aurkezterakoan erabili dituzten literatur tekniken eta idazkeraren aldetik ere. Idazle hasi berriak dira, jakina, baina beren lehenengo idazlan hauetan batzuetan heldutasun harrigarria erakusten dute.

Narratibaren alorrean lehenengo saria jaso duen lanak *Isiltasunean lagun* du izenburua. Lan honetan aipagarria da, besteaz beste, idazleak erabili duen sentsibilitatea gai konplexu eta tragikoa azaltzeko, narrazio hau alzhemerrak sortzen duen endekatze prozesuaren inguruan antolatuta dago eta. Ohiko narrazio lineala alde batera utzita, idazleak gertakarietan baino gehiago sentsazioetan jarri du arreta, oroimenean garrantzia azpimarratuz. Eta hori sentiberakerian erori gabe egin du idazleak.

Narratibaren alorrean bigarren saria jaso duenak *Gezurra* du izenburua. Bai teknikaren aldetik bai idazkeraren aldetik, aurrekoarekin konparatuta guztiz desberdina den narrazio bat aurkeztu digu. Honetan, lehenengo pertsonan aritzen den narratzailea dilema etiko baten aurrean topatzen da, non bere interesaren eta egiaren artean hautatu beharrean aurkituko den.

Narratiban hirugarren saria jaso duenak *Hitzez sortutako bidaia* du izenburua. Narrazio honekin sari honetara aurkeztu diren lanen aniztasunaren beste froga bat ikus dezakegu. Kasu honetan, elkarrizketa nagusi eta ironia lagun, euskara ikasten ari direnek oso ondo ezagutzen duten egoera bat (betiko euskaldun batekin hitz egiten saiatzea eta ez ulertzea) aurkeztu du, idazkera bizi baten bidez.

Poesiaren alorrera pasatuz, lehenengo saria jaso duen lanak *Hitzak hots* du izenburua, eta izenburu horretatik bertatik irakurlea konturatu daiteke bertan agertzen den testua elaborazio poetiko sakonaren emaitza dela, non baliabide erretoriko-estilistikoak ez diren baztertzen. Gaiaren aldetik, norberaren existentziaz galdetzen duen poesia da hau, eta norberaren existentziaz batez ere dudak agertzen direlarik, hori poeman galderen presentziari esker islatzen da.

Poesiaren alorreko bigarren saria jaso duen lanak *Tonalitate bakarra* du izenburua. Eta hemen ere ukitu existentziala aurkitu dezakegu, poema honetan aipatzen zaigun gai nagusia askatasuna baita, eta jakina, askatasunaren faltak sortzen duen egoera itogarria.

Idazle gazteak dira, nerabezaroan daudenak, helduaroaren atarian. Eta aldaketa hau da hirugarren saria jaso duen lanaren ardatza, zeinek *Heldutasuneranzko bidean* izenburu argigarria baitauka. Errealitatearen eta ametsaren arteko hautaketa moduan aurkezten da heldutasunera igaro behar hori, ametsean gozo geratzea baztertzen delarik.

Lehenago esan duguna, gai eta teknika aldetik sakontasuna erakusten dute lan hauek guztiek, eta baita aniztasuna ere.

Honelako epaimahai batean egotea zaila izaten da, aurkeztu diren lanen artean hautaketa egitea inplikatzeko baitu. Beti geratzen da inpresioa aipatutakoez gain beste batzuek ere sariak edo gutxienez aipamenak mereziko lituzketela. Sarituei beraz zorionak. Baina saritu gabe geratu direnentzat ere hitz batzuk: literatura ez da ehun metroko lasterketa laburra, maratoni luzea baizik. Eta azkenean iraunean lehiatzen denak ere bere saria izango du.